



Urdulizko udala

2020/620
ALKATETZA DEKRETUA

DECRETO DE ALCALDIA
620/2020

**JAVIER BILBAO LOPATEGI, URDULIZKO
UDALEKO ALKATEA.**

Gobernu zentralak eta autonomia-erkidegoko gobernuak, murgilduta gauden osasun-krisiaren bilakaerari erantzuteko, hainbat neurri hartu behar izan dute azken asteotan, osasun, ekonomia eta gizarte-arloan, hori guztia COVID 19 pandemia mugatu eta eutsi ahal izateko.

Pandemiaren bilakaeran eta hartu beharko diren neurrietan dagoen ziurgabetasun-egoerak segurtasunik eza sortzen du Udalak bideratzen dituen jarduerak eta ikastaroak antolatu eta eskaintzeko unean.

Baldin eta jarduerak edo ikastaroak etetera behartzen duten agerraldi berriak gertatzen badira, edo agerraldiok behartzen badute hainbat aldaketa egitera udalak bideratzen dituen ikastaroen antolaketan, eta matrikulen nahiz tasen kudeaketan, balizko egoerari erantzuteko programazio-jarraibide berriak hartu behar ditugu, eta horiek azkarrak izan beharko dute neurriak hartzeko orduan. Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Onartzen dira sor litezkeen egoeren arabera aplikatu beharko diren ondoko antolatze eta jardute-irizpide hauek:

- Baldin eta zerbitzua edo klasea ezin bada aurrez aurre eman, eta, horren orde, online eran eskaintzen bada, %25eko hobarria aplikatuko da online jarduerak edo klaseak jasotzen

**DON JAVIER BILBAO LOPATEGUI ALCALDE
DEL AYUNTAMIENTO DE URDULIZ ,**

Visto que en las últimas semanas atendiendo a la evolución de la crisis sanitaria en la que nos encontramos inmersos, tanto el Gobierno Central como el autonómico han tenido que aprobar diversas medidas sanitarias, económicas y sociales dirigidas a la contención de la pandemia COVID 19 .

Visto que esta situación de incertidumbre tanto en la evolución de la pandemia como en las futuras medidas que se deban adoptar, genera una inseguridad a la hora de poder organizar y prestar determinadas actividades y cursos organizados por este Ayuntamiento.

Y visto que debemos adoptar nuevas pautas de programación que deben ser ágiles en la adopción de medidas en el caso de que se produzcan nuevos rebrotes que obliguen a suspender la actividad o curso, así como cambios en la organización de los cursos, gestión de las matrículas y tasas que organiza este Ayuntamiento.

HE RESUELTO

Primero: Aprobar las siguientes criterios de organización y funcionamiento a aplicar en función de las diferentes situaciones que se puedan originar:

- Cuando no exista la posibilidad de prestación presencial del servicio o clase y se preste online, se aplicara una bonificación del 25% en la cuota de la tasa correspondiente al



Urdulizko udala

dituzten pertsonen tasa-kuotan, betiere modalitate horretan emandako denborari dagokionez. Online modalitate hori aukerakoa izango da, eta, aurretik, ikaslearen adostasuna beharko da.

- Aforoa edo beharra dela-eta, beharrezkoa bada klaseak modu bitara ematea, hau da, aurrez aurre eta online eran (adibidez, astebete, aurrez aurre; eta hurrengo astean, online), oso-osorik kobratuko da tasaren kuota.
- Baldin eta Udalak ezin badu zerbitzua edo klasea eman ez aurrez aurre, ez online eran, ez da kobratuko etendako denborari dagokion tasaren zatia.
- Baldin eta aforoa dela-eta beharrezkoa bada zerbitzu edo klase-orduak murriztea (aurrez aurre eran, edo online eran, edo bietan), ordu-murrizketaren proportzio berean jaitsiko da tasaren kuota.

Bigarrena: Onartzen dira matrikulen eta tasen ordainketa kudeatzeko neurri hauek:

- Aldatu egiten da ikastaroetan plaza lortu duten pertsonen ordaindu beharreko matrikula ordaintzeko unea. Ikasturtea nola hasiko den ziur ez dakigunez, urriko lehenengo hamabostaldira atzeratzen da matrikulen ordainketa, eta, horretarako, interesdunaren etxera bidaliko da dagokion kitapena, ordain dezan, eta matrikula epearen barruan ordaintzen ez bada,

periodo impartido a aquellas personas que reciban las actividades o clases online. Dicha alternativa online será opcional y requerirá el previo consentimiento del alumno.

- Si por aforo y por necesidad, sea necesario impartir las clases alternando la forma presencial con la forma online (por ejemplo una semana se acude de forma presencial y la otra se imparte de forma online), se cobrará íntegramente la cuota de la tasa.
- En caso de que el Ayuntamiento no pueda prestar el servicio o clase, ni presencialmente ni de forma online, no se cobrará la parte de la tasa correspondiente al periodo suspendido.
- En caso de que por limitación de aforo sea necesario reducir las horas de servicio o clase (presencial u online, o en ambos casos), la cuota de la tasa se reducirá en la misma proporción que la reducción horaria.

Segundo: Aprobar las siguientes medidas de cara a la gestión del pago de las matrículas y tasas :

- Se modifica el momento de pago de la matrícula que deben abonar aquellas personas que han obtenido plaza en los cursos. Ante la incertidumbre del comienzo de curso, se pospone el pago de las matrículas a la primera quincena de octubre, para ello se remitirá liquidación al domicilio del interesado para su pago, en caso de no abonarse en plazo dicha matrícula se



Urdulizko udala

berez eta besterik gabe emango zaio baja ikastaroan.

Ikastaroa hasita, ikastaroa eteten bada, ez da matrikula itzuliko.

- Bertan behera uzten da 2020-2021 ikasturteko tasaren ordainketa bakarra, eta, horren ordez, hiruhilekako kitapenak egingo dira, honela:
 - Lehenengo kitapena — urri, azaro eta abenduari dagokiena— abenduaren 21eko astean egingo da.
 - Bigarren kitapena — urtarril, otsail eta martxoari dagokiena— apirileko lehenengo astean egingo da.
 - Hirugarren kitapena — apiril, maiatz eta ekainari dagokiena— ekaineko lehenengo astean egingo da 8 hileko iraupena duten ikastaroetarako; eta uztaileko lehenengo astean, 9 hileko iraupena dutenetarako.

Hirugarrena: Dekretu honetan hartutako irizpideek eta neurriek Urdulizko Udalak antolatutako ikastaro eta jardueren 2020-2021 ikasturtea baino ez dute ukitzen.

Laugarrena: Eman bekie dekretu honen berri Kultura Arloari eta Zergak Kudeatzeko Atalari.

procederá a darle automáticamente de baja en el curso.

Una vez comenzado el curso en caso de suspensión del mismo no se procederá a la devolución de la matrícula.

- Se suspende el pago único de la tasa del curso 2020-2021 y se procederá a emitir las liquidaciones por trimestre de la siguiente forma:
 - La primera liquidación correspondiente a los meses octubre-noviembre y diciembre se emitirá la semana del 21 de diciembre.
 - La segunda liquidación correspondiente a los meses de enero, febrero y marzo se emitirán la primera semana de abril.
 - La tercera liquidación correspondiente a los meses de abril mayo y junio se emitirá para aquellos cursos que duren 8 meses la primera semana de junio y para los que duren 9 meses la primera semana de julio.

Tercero: Los criterios y medidas adoptadas en este decreto solamente afectan al curso 2020-2021 de los cursos y actividades organizados por el Ayuntamiento de Urduliz

Cuarto: Comunicar el presente acuerdo al departamento de cultura y de gestión tributaria.



Urdulizko udala

Urduliz, 2020ko irailaren 9a

Alkatea

Iz.: JAVIER BILBAO LOPATEGUI

Nire aurrean;
alkateak aginduta eta sinatuta

Idazkari – kontuhartzailea ordezkooak

Lo manda y firma el Sr. Alcalde ,
ante mí

El Secretario-interventor accidental